

# AZOKA PROIEKTUA

(Egileak: Idoia Goitia, Cristina Román eta Xabi Larrauri)

ZER?	Azoka bat, eskolako ortuan ditugun produktuekin
NOLA?	Irakasleen eta gurasoen laguntzarekin
NON?	Eskolan / herriko azokan
NORK?	Ikasleek, irakasleek, gurasoek
ZERTARAKO?	Gai hauek jorratzeko: ekonomia, gizarte-ereduak, tradizioa, natura eta kontzientzia ekologikoa

## Justifikazioa:

Azoka proiektua egitea erabaki dugu eskolan bertan ortua dagoelako eta irailean sasoiko uztari irtenbidea emateko. Horrez gain, herrian bertan, azoka ezaguna egiten da urtero hil horretan.

## Zer nahi dugu ikasleek egitea?

- Ortuariak jasotzea.
- Ortuariak antolatzea eta sailkatzea.
- Diseinatzea: saltokirako aurkezpena antolatzea.
- Txartelak sortzea. Produktuen izenak eta prezioak idaztea.
- Gonbidapenak idaztea eta lagunei bidaltzea (gutunak, posta elektronikoak...).
- Kartel informatiboak egitea.
- Kalkulagailua erabiltzea.

## Zer lortu behar dute?

- Gaiari lotutako hiztegia handitzea eta aberastea.
- Ortuariak bereiztea eta izenak ezagutzea.
- Sailkapen errazak egitea (irizpide bati edo biri jarraituta).
- Motrizitate fina edo zehatza lantzea.
- Arlo soziala lantzea.
- Kultura- eta gizarte-ohiturak ezagutzea.
- Internet informazio-iturri gisa erabiltzea.
- Ahoz ahokoa erabiltzea informazio-iturri gisa.
- Gaitasun komunikatiboa lantzea.
- Umeak ohartzea elikagai osasungarrien garrantziaz.

- Naturarekiko errespetuzko jarrera sustatzea.
- Elikadura kontsumo jasangarriarekin lotzea.
- Elikagaien bizitza-zikloaz ohartzea.
- Natura eta gizakia lotzea: aldaketak, dolua, harremanak eta sentimenduak.
- Oinarrizko matematika-kontzeptuak lantzea.
- Merkataritzaren oinarriak ezartzea.
- Urtaroak eta haiei lotutako lanak ezagutzea.
- Kartelak sortzea.
- Diseinuan parte hartzea.
- Aniztasunaren trataera sustatzea.

### **Zelan lortuko dute?**

- Ortuariak landatuz, zainduz, horien izenak ezagutuz...
- Saillkapen errazak eginez (irizpide bati edo biri jarraituz).
- Saltokirako txartelak eginez:
  - Eredu bati jarraituz, izenak eta salneurriak idatziko dituzte.
  - Irudiak Interneten bilatuko dituzte (irakaslearen laguntzaz).
  - Askotariko euskarriak erabiliz, txartelak egingo dituzte.
- Gonbidapen-gutunak eginez.
- Kartel informatiboak sortuz.
- Saltokiaren diseinua planifikatuz.

## I. ERANSKINA

### ARAZO-EGOERA. UNITATE DIDAKTIKOA PROGRAMATZEKO TXANTILIOIA

Arloa: HAUR-HEZKUNTZA
Gaia: AZOKA
Maila: HH 2. ZIKLOKO 3. MAILA (5 URTE)
Denbormalizazioa: HILABETE. Dinamikaren beharraren arabera zehaztuko da (hilabete gutxi gorabehera).
Proposamenaren justifikazioa: Azoka proiektua egitea erabaki dugu eskolan bertan ortua dagoelako eta irailean sasoiko uztari irtenbidea emateko. Horrez gain, herrian bertan, azoka ezaguna egiten da urtero hil horretan. Proiektu globala da. Eskola-komunitateak eta herritarrek parte hartuko dute proiektu honetan. Honako bi eremu hauek landuko dira, zehazki nahiz zeharka: <ul style="list-style-type: none"><li>• Norberaren nortasunaren nahiz ingurune fisikoaren eta sozialaren eraikuntzaren eremua</li><li>• Norberaren nortasunaren nahiz komunikazioaren eta irudikapenaren eraikuntzaren eremua</li></ul> Haurrak jolasaren eta esplorazioaren bitartez garatzen ditu eremu horiek. Izan ere, jolasa eta esplorazioa bere burua ezagutzeko baliagarri zaizkio. Hala, bere burua ezagutzen doan heinean, besteak eta ingurua ezagutzeko gai izango da, eta errealitatea irudikatuko du.  Hori lantzeko, honako hauek izango ditugu kontuan: curriculumeko eremuak eta landu beharreko konpetentziak, pertsona bere osotasunean hezteko.
Arazo-egoera: A. Testuingurua: Baserritarren azoka egingo da herrian –gure kasuan, Muskizen– eta ikastolak parte hartuko du bertan, saltoki bat jarritz. Salgai egongo da ikastolako baratzean irailean jasotako uzta. B. Arazoa: Nola eraman azoka aurrera? Zereginak izango dituzte, eta horiexek izango dira arazoaren ardatza. C. Helburua:

<p>Herriko azokan parte hartzeko behar den guztia antolatzea eta prestatzea.</p>
<p>Eginkizuna: Herriko azokan parte hartzeko behar den guztia antolatuko eta prestatuko dugu.</p>
<p>Oinarrizko konpetentzia guztiak proiektuaren jardueretan landuko dira, legedian agertzen diren gisara.</p>
<p>Jardueren sekuentzia:</p> <p><b>A. Hasierako fasea</b></p> <p><b>1. jarduera.</b> Aurretiko jakintzak piztu. Horretarako, herrian urtero egiten den azokari buruz hitz egingo dugu. Horretaz gain, umeen esperientziak komentatuko ditugu korroan.</p> <p><b>2. jarduera.</b> Umeei zer dakiten eta zer jakin nahi duten galdetu. Irakasleak <i>ideia-jasa</i> teknika erabiliko du, eta tamaina handiko (DIN-A2) bi kartoi mehetan idatziko ditu ideiak; kartoi batean "zer dakiten" eta bestean "zer jakin nahi duten" idatziko du, umeei korroan esandakoak kontuan hartuta.</p> <p><b>3. jarduera.</b> Ikastolako ortura hurbildu eta uzta ikusi. Eguraldi ona eginez gero, korroa bertan egingo dute. Batzar batean oinarrizko arauak gogoratuko dizkiegu umeei. Uzta aztertuko dute (ortuarien izenak, barazki motak, koloreak, kantitatea/kopurua, tamainak...).</p> <p><b>4. jarduera.</b> Umeek proiektuaren berri emango diete etxekoei, eta horrekin lotura duten informazioa eta argazkiak ekartzeko eskatuko diete gurasoei. Aldi berean, irakasleok oharra bidaliko diegu.</p> <p><b>5. jarduera.</b> Barazki eta fruten "dastaketa itsua" egingo dugu.</p> <p><b>B. Garapen-fasea</b></p> <p>Ezagutza berriak:</p> <p>Lexikoa: ortuariak, ortuko tresneria, azoka (lanbideak, garraibideak...).</p> <p>Kontzeptuak: handia, ertaina eta txikia; kolore iluna eta kolore argia; barruan eta kanpoan; goian eta behean; aurrean eta atzean; asko eta gutxi; beteta eta hutsik; gogorra eta biguna; heldua, heldugabea eta usteldua.</p> <p>Prozedurak: eragiketa errazak; baskularen erabilera (50 g); neurria (zentimetroa, 20 cm); zenbakiak (0tik 20ra bitartean).</p> <p><b>6. jarduera.</b> Azoka noiz izango den jakinda, uzta noiz jaso erabaki (korroan). Ikasleei etxetik saskiak eta ontziak ekartzeko eskatuko diegu.</p> <p><b>7. jarduera.</b> Ortuarien txartelak erabiliz (benetako argazkiak eta izena letra larriz), hiztegia gogoratu, landu, hitz berriak ikasi (<i>memory, domino</i>).</p> <p><b>8. jarduera.</b> Ortuko tresneriaren liburutxoak sortu. Marrazkiak margotu,</p>

izenak gainetik idatzi eta etxera eraman.

**9. jarduera.** Zenbakikuntza landu (0-20), ortuko produktuekin zenbait eragiketa egin (kardinalak eta ordinalak ere landu).

**10. jarduera.** Sailkapenak egin. Koloreak (gorria, morea, berdea, horia, laranja...), tamaina (handia, ertaina, txikia) eta produktuak (piperrak, tomateak, kalabazak, kalabazinak, tipulak, zerbak, lekak, berakatzak, pepinoak, usain-belarrak...). Kalabazari loturiko esamolde hau: "Hala bazan edo ez bazan...".

**11. jarduera.** Usain-belarrak sortatan antolatu (50 ale inguruko sortak eta 20 cm-ko soka zatiak). Magnitudez, neurritz, pisuz eta abarrez gain, esku-trebetasuna (motrizitate xehea) ere landu.

### **C. Aplikazio- eta komunikazio-fasea**

**12. jarduera.** Ortuarien izenak eta prezioak idatzi txarteletan saltokian jartzeko.

**13. jarduera.** Uzta jaso eta sailkatu.

**14. jarduera.** Azokan parte hartu. Ikasleak saltzaile eta laguntzaile arituko dira saltokian, eta ikasitakoa erosleen hartu-emanetan erabiliko dute.

**15. jarduera.** Azokaren berri emateko, umeen marrazkien eta IKTen bidez kartel informatiboak sortu eta kalean eta herriko dendetan itsatsi.

### **D. Orokortzea eta transferentzia:**

**16. jarduera.** Irakasleek gurasoak animatuko dituzte, umeek eguneroko erosketetan parte har dezaten.

**Ebaluazioa:**

**HASIERAKO EBALUAZIOA**

A. Lorpen-adierazleak:

- Irakasleok batzarra egin dugu ikasleekin.
- Guztion parte-hartzea bermatu dugu irakasleok.
- Azoka zer den badakite.
- Etxetik gauzak ekarri dituzte.
- Jakin-mina sortzen dieten ideiak aipatu dituzte.
- Ortuarien izenak, barazki-motak, kantitatea/kopurua, koloreak, tamainak... badakizkite.

B. Tresnak:

- Jardueren behaketa (batzarra, behaketa orokorra...)
- *Kontzeptuen kontrol-fitxa*. Fitxa horretan irakasleak adieraziko du ikasleek aurretiaz zer dakiten
- Marrazkia

**EBALUAZIO HEZIGARRIA ETA PROZESUAREN EBALUAZIOA**

A. Lorpen-adierazleak:

- Badaki egutegian azoka-eguna kokatzen.
- Saskiak, ontziak... ekarri ditu etxetik.
- Memory-rekin, dominoarekin, txartelekin... jolastu da.
- Osatutako liburutxoa etxera eraman du, bertan egindako marrazkiak margotu eta izenak gaintetik idatzi ondoren (8. jarduera).
- Ortuko produktu batzuk zenbatu eta ordenatu egin ditu.
- Koloreak (gorria, morea, berdea, horia eta laranja) ezagutzen ditu.
- Tamainak (handia, ertaina, txikia) ezagutzen ditu.
- Ortuko produktu batzuk ezagutzen ditu.
- Usain-belarrak sortatan biltzen ditu.

B. Tresnak:

- Behaketa zuzena
- Kontrol-fitxa

**AMAIERAKO EBALUAZIOA**

A. Lorpen-adierazleak:

- Azoka ganoraz eraman du aurrera.
- Gai da produktu-salerosketan aritzeko.
- Euskara erabili du erosleekin komunikatzeko.
- Besteekin komunikatzeko gaitasuna erakutsi du (ikasleen artean, nagusien aurrean).
- Gai da matematika-eragiketa errazak egiteko.
- Produktuak sailkatzen ditu.
- Laguntza eskatzen du.

- Besteen akatsak onartu ditu.
- Ikaskideei lagundu die.
- Sormena eta inizatiba erabili ditu.
- Autonomiaz jokatzeko gai da.
- Emozioen kontrola: emozioak adierazten eta kontrolatzen ditu.
- Badaki salerosketak egiten, baita antzeko egoeretan aritzeko ere.
- IKTak irakaslearen laguntzarekin erabiltzen ditu.

B. Tresnak:

Korroa. Norberari gustatu zaiona, gustatu ez zaiona. Zerbait hobetzeko, aldatzeko, kentzeko proposamenak.

Behaketa